

Nazioarteko adopzioak

Haurrari zer komeni zaion, horixe

Urtean 6.000 familiak egiten dute adopzioa Espainian, eta prozesu hori arautu nahi izan du Nazioarteko Adopziorako Lege berriak, betiere adingabearen eskubideak oinarri hartuta



Espainian egiten da egun nazioarteko adopzio gehien, Ameriketako Estatu Batuen ondotik. Azken hamar urtetan asko ugalduta dira adopzioak, eta orain 12,3 egiten dira ehun mila biztanleko, ia 6.000 urtean. Gehienak Europako Ekialdean, Txina eta Hego Amerikan, Espainian oso haur gutxi dagoelako adopzioan hartzeko. Adopzioa lehen ere arautua zegoen arren lege berria egin dute oraintsu, Nazioarteko Adopziorako 54-2007 Legean (abenduaren 28koa). Adingabearen eskubideak zaindu eta babestea du helburu nagusi. Legeak argi dio gauza guztien gainera, haurrari zer komeni zaion begiratu behar dela. Erabateko lehen-tasuna du haren eskubideak zaintzeak. Haur trafikoari edo salmentari aurre egiteko neurriak ditu arauak, eta era guztietako diskriminazioak saihesteko bitartekoak jarri nahi ditu. Edozein dela ere adingabearen jatorria, arraza, sexua, erlijioa, hizkuntza eta kultura, ezin da inor baztertu, eta berdintasun edo gaixotasunen bat badu eta edozein dela ere haren egoera pertsonala, soziala edo familiara. Herrialderen batean gerra badago, edo hondamendi naturalen bat, inork ezin du hasi adopzio prozesurik, eta herrialdeak berme egokirik ematen ez badu, orduan ere ez.

Edozeinek adoptatu dezake?

Norbait alabatzen edo semetzat hartzeko, gaitasun eta motibazio egokiak izan behar ditugu; ongi egon behar dugu ekonomikoki eta osasunez ere bai. Baldintza horiek betetzen dituen 'egokia' izango da guraso izateko eta ardura jakin batzuk hartzeko. →



Bikotekiderik ez dutenek ere adoptatu dezakete?

Espainiako legediak honako hauei ematen die aukera adoptatu ahal izateko: bakarrik bizi direnei, bikotekidearekin daudenei eta ezkonduen -25 urte baino gehiago baditu bakoitzak. Hala ere, haurraren herrialdean jartzen dizkieten baldintzak bete beharko dituzte. Txinak, adibidez, ez die eragozpenik jartzen gizon ezkongabeei, alargunei edo dibortziatei, baldin eta haurrak baino 40 urte zaharragoak badira. Errusian eta Brasilen, ez dago arazorik bikotekiderik ez dutenentzat, baina leku guztietan ez da berdin gertatzen. Bulgarian, Guatemalan, Hungarian, Indian, Kazakhstan-en, Madagaskarren, Moldavian eta Nepalen, ezkonduen soilik egin dezakete adopzioa, eta bakarrik bizi diren emakumeek.

Zein da lehen urratsa?

Lege prozesua autonomia erkidego desberdinetan aldatu egiten da.

Familia eta adingabeen arloetan eskumena duen erakundearengana jo behar dugu lehenbizi, informazio eske. Nazioarteko adopzio-txosten bat abian jartzeko, eskabide orri bat bete behar dugu, eta beste zenbait dokumentu ere aurkeztu behar dira: errolda agiria, errenta adierazpena, mediku txostenak, kondenen edo epaiketen agiritegia eta abar. Ondoren, ikusi beharko da betetzen ote ditugun egokitasun baldintzak, horiek bete gabe, ez baitagute emango egokitasun aitormena, eta aitormen hori gabe, prozesua ez da aurrera joango.

Zer da egokitasun aitormena?

Azterketa psikosozial bat egingo digute, eta horren arabera neurtuko dute zer egoera pertsonal daukagun, zer familia giro eta zer harreman testuinguru. Hala erabakiko dute gai ote garen harreman egonkor eta sendoak edukitzeko eta adingabea zaintzeko.

Egokitasun aitormena guk hautatu dugun herrialdeko arduradunei bidaliko diete. Han, abian jarriko dute adopzio-txostena, eta hango arduradunek erabakiko dute adopzioa egin edo ez.

Nor jartzen da harremanetan beste herrialdeko arduradunekin?

Bi modu daude. Aukera bat da Nazioarteko Adopzioarako Elkarte Laguntzaileetara jotzea (bitartekaritza agentziak dira). Kontratu bat sinatuko dugu, eta haurraren herrialdeak eskatzen dituen dokumentu guztiak atxikiko dizkiogu dosierari. Dosier hori bidali aurretik, hango hizkuntzara itzuli behar da, eta legeztatu ere egin behar da, bestela ez baitiote baliorik emango. Elkarte bakoitzak ordezkaria izaten du beste herrialdean, eta hark aurkezten die dosierra adopzio-gaia eraman ohi dituzten arduradunei; hortik aurrera, haiek erabakiko dute zein haurri dagokion familia bakoitza.

Beste aukera, eskatzaileak berak itzultzea eta legeztatzea beste herrialdeak galdegin dituen dokumentu guztiak. Behin dosierra osatuta dagoenean, ohikoena izaten da Gizarte Gaietarako Ministerioaren bidez bidaltzea.

Zer dator gero?

Izendatzea. Haur bakoitza zaintzeko zein familia den egokiena erabakitzen dute haurraren herrialdeko arduradunek, eta halaxe izendatzen dute. Bidaia noiz egin ere lotu behar izaten da, beste herrialdera joan beharra baitago, azken paperak bete, adopzioa gauzatu eta haurra hartzeko.



Herrialdeko arduradunen aurrean adopzioa gauzatu ondoren, eta erabateko onespina eman badiote, Enbaxadako Kontsul Saileran joan beharko dugu, edo Espainiako Kotsuletara, eta han, haurraren izena eman beharko dugu –jaiotza agiria bete–, kotsulak pasaportea egin eta Espainiako naziotasuna eduki dezan. Hurrengo hilabeteetan, jaiotza agiriaren kopia bidaliko dugu erregistro bulego nagusira.

Zer laguntza ematen dute Nazioarteko Adopzioarako Elkarte Laguntzaileek?

Eskatzaileak harremanetan jartzen dituzte haurraren herrialdeko arduradunekin, eta laguntza ematen dute adopzioa egin ahal izateko. Honako funtzioak hauek bete ditzakete:

- Informazioa eta aholkuak eman.
- Herrialde baten eta bestean eskatzen dituzten adopzio-txostenak egiten lagundu.
- Gure herrialdean eta haurraren zer pauso eman behar dugun aholkatu eta horiek ematen lagundu.
- Beste herrialdeak betebeharrak batzuk ezartzen dizkie gurasoei adopzioa egin eta geroko, eta betebeharrak horien inguruko kontuak bideratzen laguntzen dute.

Nazioarteko Adopzioarako Elkarte Laguntzaileek zenbait baldintza bete behar dituzte: irabazi asmorik gabek izan behar dute, eta dagokien erregistroan izena emana eduki behar dute. Haurra babesteko helburuz ari direla adierazi behar dute estatutuetan, beharrezko baliabide materialak eduki behar dituzte, eta arlo askotako jendea biltzen duten lan taldeak ere bai.

Horiek zuzentzeko eta gidatzeko, gainera, pertsona egoki prestatuak eduki beharko dituzte, zintzo jokatzeko dutenak, eta arlo honetan esperientzia dutenak.

Zer harreman mota da Nazioarteko Adopzioarako Elkarte Laguntzailearen eta gure artekoa?

Kontratua egiten da bien artean. Administrazioaren onspen guztia izaten du, eta oso zehatza da edukietan: adopzio eskabidea bideratzeko orduan, bitartekari funtzioak nork eta nola egingo dituen esaten du, ez besterik.

Zenbat kostako zaigu hori egitea?

Nazioarteko Adopzioarako Elkarte Laguntzaileek ez dute dirua irabazteko asmorik, baina, bitartekaritza lanean, gastu batzuk izaten dira. Atzerrirako bidai eta egonaldiak ere ordaindu beharko ditugu.

Gaixotasun bat sendatzera edo oporrak pasatzera atzerritik gurera etorri den haur bat adoptatu dezakegu?

Giza laguntzako programen bitartez, zenbait familiak atzerriko haurrak hartzen dituzte etxean denboraldi batez, oporraldia igaro, ikasketak egin edota medikuntza joateko. Egonaldi horren ondoren adopzio eskabidea egin ahal izateko, lehenik eta behin, egonaldiak bukatu egin behar du, aurrez ezarri zaizkion baldintzak bete. Horrez gain, haurrak adopzio mota hori bideratzeko programetan parte hartu behar du bere herrialdean.

Gerta liteke alabatzen edo semetat hartu dugunak bere jatorria zein den jakin nahi izatea; egin dezake hori?

Nahi bada bai, adinez nagusi denean, edo lehenago. Eskubidea du bere jatorria ezagutzeko eta erakunde publikoen esku dauden dokumentuen berri izateko, beti ere, gurasoen baimenarekin. Adingabeen babeserako erakunde publikoetara jo behar da, eta haiek dituzten zerbitzu espezializatuen aholkuei, laguntzei eta bitartekaritzari jarraitu. Beste zenbait erakundek ere badute baimena arlo honetan jarduteko, eta horien bitartez ere egin dezakegu.

Lege berriak zer du nabarmentzeko modukoa?

Betebeharrak jarri ditu nazioartean “adopzio sinple” direnak “erabateko adopzio” bihurtzeko.

Zer da adopzio sinplea?

Egonaldi baten antzekoa, baina gure Zuzenbidean ez dago lekurik halakoa izateko. Haurrak ez ditu eteten guraso biologikoekin dituen loturak eta askotan atzera bota daiteke.

Gehienetan, ezin daitezke parekatu berezko seme-alabak dituztenei dagozkiekin eta erabateko adopzioekin.

Lege berriarekin atzerriko adopzio sinplea Espainian erregistratu liteke. Baldintzak, hauek: pertsona eta erakundeak beharrezko informazioa izan dutela, aukera libre eta dohan hartu dutela; amaren baimena umea jaio baino lehen jaso dela eta umeak horretarako adina duenean baimena eman duela. +